

## BAREMOA

Araudia: 173/2021 Ebazpena (111. NAO); 46/2021 Foru Agindua (108. NAO); 33/2021 Foru Dekretua (99. NAO).

Plaza baino eskaera gehiago badaude soilik ezarriko da baremoa. Kontuan izan baremoan puntuak lortzeko dokumentazio guztia aurrematrikula epe barruan aurkeztu beharko dela.

### A) LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK

1. **Anai-arrebak** eskolan matrikulatuta egotea (2021-2022 ikasturtean): 3 puntu.

2. **Bizilekua edo gurasoen lantokia eskolatik hurbil:**

4 puntu: uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan zehaztutako eremuetan badago (Zizur Nagusia, Belaskoain, Arraitza, Ubani, Zabaltza, Asterain, Zizur Txiki, Gazolatz, Larraia, Muru-Asterain, Paternain, Undio, Zarikiegi, Otazu, Arlegi, Barbatain, Espartza, Galar eta Subitza).

3 puntu: ikastetxearen eragin eremuaren barnean badago.

1 puntu: ikastetxearen eragin eremuaren mugakidea bada.

0 puntu: ez badago aurreko egoeretako batean.

**Egiaztagiria:** bizilekua denean, erroldatze-ziurtagiria edo -bolantea (gutxienez gurasoetako bat agertu behar da ikaslearen etxebizitza berean, *eta ziurtagiria edo bolantea luzatuta egon behar da aurrematrikula epea amaitu aurreko 90 egun naturalen barruan*); lantokia denean, enpresako ziurtagiria (*egina izan behar du aurrematrikula epea amaitu aurreko 90 egun naturalen barruan*); edo, autonomoek, ekonomia-jardueraren zergan altaren ziurtagiria eta azken ordainketaren kopia.

3. **Familia-unitatearen per capita errenta (PCE)**, 2021eko lanbide arteko gutxieneko soldatarekin alderatuta:

3 puntu: PCE 6.650€-koa edo txikiagoa bada.

2 puntu: PCE 6.650€ baino handiagoa eta 9.975€-koa edo txikiagoa.

1 puntu: PCE 9.975€ baino handiagoa eta 13.300€-koa edo txikiagoa.

0 puntu: PCE 13.300€ baino handiagoa bada.

**Egiaztagiria:** 2019ko Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenaren alearen 1. orria, betiere baliozkotze mekanikoaren kodea daramana. Irizpide hau baloratzea nahi duenak soilik aurkeztuko du.

4. **Desgaitasuna** izatea (**%33 edo +**). Ikasleak badu: 2 puntu - Gurasoek edo anai-arrebek badute: 0,5 puntu.

**Egiaztagiria:** desgaitasun maila adierazten duen agiri ofiziala.

5. **Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima** izatea: 1 puntu. **Egiaztagiria:** agiri ofiziala.

6. Gurasoak edo legezko tutoreak **ikastetxean lan egitea**: 0,8 puntu.

7. **Legez familia ugariko kidea** izatea: 0,8 puntu. **Egiaztagiria:** familia ugari izatearen agiri ofiziala.

8. **Ikaslea familia harreran** egotea: 0,8 puntu. **Egiaztagiria:** agiri ofiziala.

9. **Familia gurasobakarra** izatea: 0,8 puntu. **Egiaztagiria:** familia gurasobakarra izatearen agiri ofiziala.

10. **Erditze anikoitzean** sortutako ikasleak: 0,8 puntu. **Egiaztagiria:** agiri ofiziala.

**B) IRIZPIDE OSAGARRIA** (hau soilik erabiliko da lehentasunezko irizpideekin ikasleak onartzeko ordena zehazteko nahiko ez denean).

11. **Hurbiltasun lineala:** eskatzailearen bizilekuaren eta hautatutako ikastetxearen/ikastetxeen arteko **distanzia 1.500 metro edo hori baino txikiagoa** denean: 0,5 puntu.

**Egiaztagiria:** erroldatze-ziurtagiria edo -bolantea (lehen zehaztutako baldintza berbera, *gehi etxebizitzan alt-data izan behar dela eskabideak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez 30 egun lehenagokoa*).